AUSAZKO JOKOAREN ERABILERA DESEGOKIARI LOTUTAKO ARRISKUAK PREBENITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA, BAI AURREZ AURRE BAI ONLINE, INGURUNE KOMUNITARIOETAN ETA AISIALDIAN XEDE DUEN ADMINISTRAZIO-KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS DEL CONTRATO ADMINISTRATIVO QUE TIENE POR OBJETO LA CONTRATACIÓN DE UN SERVICIO PARA LA PREVENCIÓN DE RIESGOS ASOCIADOS A UN USO INADECUADO DEL JUEGO DE AZAR, TANTO PRESENCIAL COMO ON LINE, EN ENTORNOS COMUNITARIOS Y DE OCIO**
1.- SARRERA	**1.- INTRODUCCION**
Euskadiko 2023 – 2027 Adikzioen VIII. Planaren helburu nagusietako bat da **nerabezaroan eta gaztaroan osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzea.**	El VIII Plan de Adicciones de Euskadi 2023–2027, destaca como uno de sus **principales objetivos**, reforzar la **promoción de la salud y la prevención de adicciones en la adolescencia y juventud**.
Helburu hori lortzeko, aurreikusitako ekintzetako bat da **nerabeei eta gazteei zuzendutako prebentzio-programak bultzatzea, jokoaren eta teknologiaren erabilera desegokiari lotutako arriskuak murrizteko,** generoaren araberako desberdintasunak kontuan hartuta.	Para la consecución de ese objetivo, una de las acciones previstas es impulsar **programas de prevención dirigidos a adolescentes y jóvenes para reducir los riesgos asociados a un uso inadecuado del juego y de la tecnología**, teniendo en cuenta las diferencias según el género.
Osasun Ministerioaren 2025eko Drogei buruzko Plan Nazionala eta ESTUDES 2025 inkestaren, Espainia osoan 14-18 urte bitarteko 35.000 ikasle baino gehiagori egindakoa, arabera, handitu egin da online jokoaren eta joko presentzialaren prebalentzia gazteen artean, batez ere gizonen artean, eta baita joko problematiko posiblearen artean ere ikasleen artean. Zehazki, **2025ean, bigarren hezkuntzako ikasleen % 13k ausazko online jokoetan jokatu du, eta % 20,9k aurrez aurrekoetan. 2023ko eta 2021eko datuak baino altuagoak dira.** Ausazko jokoaren bi modalitateetan, zifrak handiagoak dira mutiletan nesketan baino (online: % 20,7 gizonak vs % 5,3 emakumeak; presentziala: % 29,5 gizonak vs % 12,3 emakumeak).	**De acuerdo al Plan Nacional sobre Drogas del Ministerio de Sanidad del 2025 y la encuesta ESTUDES 2025**, realizada a más de 35.000 estudiantes de 14 a 18 años en toda España, ha aumentado la prevalencia del juego de azar online y presencial entre los jóvenes, especialmente entre los varones, así como el posible juego problemático entre los estudiantes. Concretamente, **en 2025, el 13% de los estudiantes de secundaria ha jugado a juegos de azar online, y un 20,9% de forma presencial. Son datos superiores a los de 2023 y a los de 2021.** En ambas modalidades de juego de azar, las cifras son mayores en los chicos que en las chicas (online: 20,7% hombres vs 5,3% mujeres; presencial: 29,5% hombres vs 12,3% mujeres).
Horrez gain, azterlan berberetan jasotzen denez, teknologia berrien erabilera okerra (% 78,8) eta legezko drogak (% 74,3) dira eskoletan gehien lantzen diren gaiak, eta **online jokoa eta apustuak dira gutxien jorratzen den gaia (% 54,1).**	Adicionalmente, en los mismos estudios, se recoge que los temas más cubiertos en las escuelas son el mal uso de las nuevas tecnologías (78,8%) y las drogas legales (74,3%), siendo **el juego online y las apuestas el tema menos abordado (54,1%).**
Kontuan hartuta **online jokoaren ezagutza gainerako adikzioena baino txikiagoa dela, azken urteetan kontsumoak gora egin duela, eta landa-inguruneetan kalteberatasun berezia dagoela identifikatu dela**, sakabanaketa geografikoarekin, prebentzio-baliabideetarako sarbide txikiagoarekin eta	Teniendo en cuenta que el **conocimiento del juego online es inferior al resto de adicciones, el incremento de su consumo en los últimos años, y que se ha identificado una especial vulnerabilidad en entornos rurales**, asociada a factores como dispersión geográfica, menor acceso a recursos preventivos y contextos de socialización

sozializazio-testuinguru espezifikoekin lotuta, egoera horrek esku-hartze goiztiarrak eta lurralde-estaldura handiagoa eskatzen ditu.	específicos, este escenario exige intervenciones tempranas y una mayor cobertura territorial.
Esparru horretan, **zerbitzu bat jarri nahi da martxan, modu dibertigarrian gazte, nerabe eta familiengana erraz iritsi ahal izango dena jarduera gamifikatuak eginez; ingurune osasungarriak garatzen eta gazteen bizitzarako gaitasun emozionala eta trebetasunak hobetzen lagunduko duena, jolasen gehiegizko erabileraren ondorioei buruz kontzientziatuz, joko problematiko edo patologikoko egoerak agertzea prebenitzeko.**	En este marco, se pretende **poner en marcha un servicio que, de una manera divertida, pueda llegar fácilmente a jóvenes, adolescentes y familias a través de la realización de actividades gamificadas; que contribuya al desarrollo de entornos saludables y a la mejora de la competencia emocional y de las habilidades para la vida de los y las jóvenes, concienciándoles sobre las consecuencias del uso abusivo de juegos con el fin de prevenir la aparición de situaciones de juego problemático o juego patológico.**
2. KONTRATUAREN EZAUGARRIAK **2.1- XEDEA** Kontratazio honen xedea da **gazteei, nerabeei eta familiei zuzendutako esku-hartzeak egitea, ausazko jokoaren erabilera desegokiari lotutako arriskuak prebenitzeko, bai aurrez aurre bai online, ingurune komunitarioetan eta aisialdian.**	**2.- ELEMENTOS DEL CONTRATO** **2.1- OBJETO** El objeto de esta contratación es la realización de **intervenciones dirigidas a jóvenes, adolescentes y familias para la prevención de riesgos asociados a un uso inadecuado del juego de azar, tanto presencial como on line, en entornos comunitarios y de ocio.**
2.1.1- HELBURU OROKORRA • **Gaitasun emozionala eta gazteen bizitzarako trebetasunak hobetzea, jolasen gehiegizko erabileraren ondorioei buruz kontzientziatuz, joko problematikoko edo joko patologikoko egoerei aurrea hartzeko, generoaren araberako desberdintasunak kontuan hartuta.**	**2.1.1- OBJETIVO GENERAL** • **Mejorar la competencia emocional y las habilidades para la vida de las y los jóvenes, concienciándoles sobre las consecuencias del uso abusivo de juegos con el fin de prevenir la aparición de situaciones de juego problemático o juego patológico,** teniendo en **cuenta las diferencias según el género.**
2.1.2- HELBURU ESPEZIFIKOAK • **Ondorio desatseginak eta kontrol-galera agertzea errazten duten egoerak eta etorkizuneko adikzio baten hasiera** izan daitezkeenak **ezagutzea.** • **Zorizko jokoen erabileran autokontrolerako jarraibideak** barneratzea eta jolasarekin zerikusia duten jardueretan **moderazio- eta erantzukizun-balioak** sartzea. • **Jokoaren erabilera desegokia ematen denean ager daitezkeen ondorio negatiboak** ezagutzea eta aztertzea.	**2.1.2- OBJETIVOS ESPECÍFICOS** • **Reconocer las circunstancias que favorecen la aparición de efectos desagradables y pérdida de control** que pueden constituir los albores de una futura adicción. • **Incorporar pautas de autocontrol** en el uso de juegos de azar e i**ntroducir valores de moderación y responsabilidad en el uso de actividades relacionadas con el juego.** • **Conocer y analizar las consecuencias negativas que pueden aparecer cuando se da un uso inadecuado del juego.**
2.2- JARDUN-EREMUA EAEko Adikzioen VIII. Planak ezartzen duen jarduera-eskemaren arabera, kontratatu beharreko zerbitzua **nerabezaroan eta gaztaroan osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzen duen jarduera-ildoaren barruan kokatzen da**,	**2.2- ÁMBITO DE ACTUACIÓN** De acuerdo al esquema de actuación que establece el VIII Plan de Adicciones de la C.A.P.V., el servicio a contratar **se enmarca en la línea de actuación que refuerza la promoción de la salud y la prevención de adicciones en la adolescencia y juventud**, impulsando programas prevención

nerabeei eta gazteei zuzendutako prebentzio-programak bultzatuz, jokoaren erabilera desegokiarekin lotutako arriskuak murrizteko.	dirigidos a adolescentes y jóvenes para reducir los riesgos asociados a un uso inadecuado del juego.
Komunitate- eta aisialdi-arloko prebentzio-programa bat da, eta **gazteen gaitasun emozionala eta bizitzarako trebetasunak hobetzea du helburu, joko problematikoaren edo joko patologikoaren egoerak agertzea prebenitzeko jokoen gehiegizko erabilerak dakartzan ondorioez kontzientziatuz.**	Se trata de un **programa de prevención en el ámbito comunitario y de ocio, cuyo enfoque y abordaje, se fundamenta en la mejora de la competencia emocional y de las habilidades para la vida de los y las jóvenes, concienciándoles sobre las consecuencias del uso abusivo de juegos con el fin de prevenir la aparición de situaciones de juego problemático o juego patológico.**
Nerabe, gazte eta familiei zuzendutako programa da. **Esku-hartzeak diseinatzean eta gauzatzean, kontuan hartu beharko dira parte-hartzaileen eta haien ingurunearen beharrak, baldintzak eta egoera bereziak**.	Un programa, dirigido a adolescentes, jóvenes y familias. **En el diseño y ejecución de las intervenciones deberán tenerse en cuenta las necesidades, condiciones y situaciones particulares de las personas participantes y su entorno.**
2.3-ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK **Erakunde esleipendunak betebehar hauek izango ditu:** • **Gutxienez 60 esku-hartze egitea** EAEan, ondorengo betekizunekin: o **Gutxienez 20 esku-hartze lurralde historiko bakoitzean. Esku-hartze horietatik 10 gutxienez 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan** egin beharko dira. o **Gehienez 6 esku-hartze egin ahalko dira udalerri bakoitzean.** o **Ekintza, bi azkioetan banatuko da: jarduera bera, eta egindako jarduerari buruzko hausnarketa-denbora, eta ondorioak bateratzea.** o **Esku-hartzeak asteburuetan, jaiegunetan eta eskolako oporretan egingo dira** (Aste Santua, udako oporrak eta Gabonak). • **Esku-hartzean erabilitako materiala Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo da eskuragarri: euskaraz eta gaztelaniaz. Esleipendunak bi hizkuntza-bertsioen kalitatea eta baliokidetasuna ziurtatu beharko ditu.**	**2.3-OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD ADJUDICATARIA** La **entidad adjudicataria estará obligada a**: • Realizar un **mínimo de 60 intervenciones en la C.A.P.V.** con los siguientes requisitos: o **Mínimo de 20 intervenciones en cada Territorio Histórico, de las cuales como mínimo 10** intervenciones deberán de realizarse **en municipios cuya población es inferior a 5.000 habitantes.** o **Se podrán realizar como máximo 6 intervenciones por municipio.** o La actividad **se articulará en dos acciones** diferenciadas: la **realización de la actividad propiamente dicha y un espacio posterior de reflexión y puesta en común de conclusiones**. o **Las intervenciones se realizaran los fines de semana, festivos y en vacaciones escolares** (Semana Santa, vacaciones de verano y Navidad) • El **material** utilizado en la intervención deberá estar **disponible en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, euskera y castellano.** La adjudicataria estará obligada a asegurar la calidad y equivalencia en ambas versiones lingüísticas.

• **Jarduera euskaraz edota gaztelaniaz egin beharko da, parte-hartzaileek adierazitako hizkuntza-hautua kontuan hartuta. Erakunde esleipendunak jarduera eskatutako hizkuntzan emango dela ziurtatzeko behar diren giza baliabideak izan beharko ditu.**	• **La actividad deberá realizarse en euskera y/o en castellano**, atendiendo a la **elección lingüística expresada por los y las participantes de la actividad**. La **entidad adjudicataria** estará **obligada a disponer de los recursos humanos necesarios para asegurar la impartición de la actividad en la lengua requerida.**
• **Lantaldearen erdiak, gutxienez, prestakuntza akademikoa izan beharko du gizarte- eta giza zientzietako diziplinetan, eta, gainera, adikzioen prebentzioko prestakuntza osagarria, gutxienez 20 ordukoa.**	• Al menos la **mitad del equipo de trabajo** deberán **contar con formación académica en disciplinas de las ciencias sociales y humanas y, además, formación complementaria en prevención de adicciones, de al menos 20 horas.**
• Lanaren metodologia izango da ausazko jokoa prebenitzeko tailerrak egitea, online nahiz aurrez aurre, jarduera gamifikatuen bidez egingo da.	• La metodología del trabajo consistirá en realizar **talleres de prevención al juego de azar tanto online como presencial** a través de actividades gamificadas.
• Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari emailez **esku-hartzeen bilakaerari buruzko informazioa bidaltzea:** ➢ **Bi hilean behin txosten bat**, lehenengo esku-hartzea egiten denetik kontatzen hasita. Txosten horretan, **gutxienez, honako informazio agertuko da:** ▪ **Esku-hartzeak lurralde historikoaren eta udalerriaren arabera, honako hauek zehaztuta:** o **Jardueraren data.** o **Jardueraren lekua.** o **Zer ordutegitan egin den.** o **Egindako jardueren kopurua** ➢ **Familia-eremuan** (familian, gurasoekin edo beste senide batzuekin egindakoak) ➢ **edota lagun-taldean edo, oro har, herritarrek egindakoak.** o **Parte-hartzaileen kopurua. Adinaren eta generoaren arabera** banakatuta: ➢ **Amak, aitak edo beste senide batzuk** ➢ **Gazteak:** ➢ **14-18** ➢ **19-24** ➢ **>25 urte**	• Remitir por email a la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno **Vasco información relativa a la evolución de las intervenciones**: ➢ **Un informe bimensual** a contar desde la realización de la primera intervención, **donde se detallará como mínimo la siguiente información:** ▪ **Intervenciones por Territorio Histórico y municipio, detallando:** o **Fecha de la actividad.** o **Lugar de la actividad.** o **Horario en el que se ha realizado.** o **Nº de actividades realizadas en:** ➢ **ámbito familiar** (actividad realizada en familia con madres, padres u otros familiares) ➢ **o realizadas en grupo de amigos y/o ciudadanía en general.** o **Número de participantes. Desglosado por ámbito de edad y género:** ➢ **Madres, padres u otros familiares** ➢ **Jóvenes:** ➢ **14-18** ➢ **19-24** ➢ **>25 años**

➢ **Lagun-taldea edota herritarrak, oro har:** ➢ **14-18** ➢ **19-24** ➢ **25-34** ➢ **> 35 urte**	➢ **Grupo de amigos y/o ciudadanía en general:** ➢ **14-18** ➢ **19-24** ➢ **25-34** ➢ **> 35 años**
▪ **Esku-hartze bakoitzaren gogobetetze-inkesta**, jardueraren edukiari eta ezaugarriei buruzkoa.	▪ **Encuesta de satisfacción por cada intervención,** sobre el contenido y características de la actividad.
▪ **Esku-hartze bakoitzaren pretest eta postest ebaluazioa, baita horietatik eratorritako ondorioak** ere. Egindako ebaluazio-prozesutik abiatuta identifikatutako hobekuntza-proposamenak barne.	▪ **Evaluación pretest y postest de cada intervención, así como las conclusiones** derivadas de los mismos. Incluyendo propuestas de mejora identificadas a partir del proceso de evaluación llevado a cabo.
➢ **Azken memoria, kontratua gauzatzeko epea amaitzean. Ebaluazio kuantitatiboko eta kualitatiboko memoria bat**, kontratatutako zerbitzua betetzeko plegu honetan zehaztutako helburuak eta betebeharrak aipatuko dituena.	➢ **Una memoria final a la finalización del plazo de ejecución del contrato. Una memoria de evaluación cuantitativa y cualitativa** que haga referencia a los objetivos y obligaciones especificadas en este Pliego para el cumplimiento del servicio contratado.
• **Txostenak euskaraz eta gaztelaniaz** egingo dira.	• **Los informes se emitirán en euskera y castellano**
• **Programaren garapenean eragina izan dezakeen edozein gertaeraren berri berehala ematea.**	• **Comunicar inmediatamente cualquier eventualidad acontecida y que afectara al desarrollo del programa.**
• Gainera, programa gainbegiratzeko eta jarraipena egiteko, **Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eskubidea izango du kontratatutako erakundeari informazioa, azterlanak edo datuak eskatzeko, exekuzioaren jarraipena eta kontrola egin ahal izateko.**	• Además, para la supervisión y seguimiento del programa, la **Dirección de Salud Pública y Adicciones se reserva el derecho de solicitar información, estudios o datos** de cualquier naturaleza a la entidad contratada, al objeto de poder realizar la tarea de seguimiento y control de la ejecución.
• **Kontratua luzatzen bada, ebaluazio orokor bera egingo da, ezarritako luzapen-aldia amaitzean.**	• **En caso de que el contrato sea prorrogado, se realizará la misma evaluación general, a la finalización del periodo establecido de prórroga.**
• **Jarduera toki-erakundeei eskaintzeko, Adikzioen Tokiko Plana duten toki-erakundeetako talde teknikoekin koordinatuko da. Kontratua gauzatzeko ardura duen zuzendaritzari kontsulta egin ondoren, Adikzioen Planik garatu ez den toki-erakundeetan erakunde esleipendunak zuzenean eskaini ahal**	• La oferta de la actividad a las entidades locales **se realizará en coordinación con los equipos técnicos de las entidades locales con Plan Local de Adicciones**. **Previa consulta a la Dirección responsable de la ejecución del contrato, en aquellas entidades locales donde no se haya desarrollado un Plan de Adicciones, la entidad adjudicataria**

izango dio toki-erakundeeri prebentzio-programa.	**podrá realizar la oferta del programa de prevención de forma directa con la entidad local**.
2.4-KONTRATUAREN BEREZKO JARDUERAK	**2.4-ACTIVIDADES PROPIAS DEL CONTRATO**
2.4.1-PLANGINTZA ETA DISEINU FASEA	**2.4.1- FASE DE PLANIFICACIÓN Y DISEÑO**
• **Erakunde esleipenduna harremanetan jarri beharko da jarduera egingo den tokietako Adikzioen Tokiko Plana duten toki-erakundeetako arduradunekin, datak ixteko eta zehazteko..**	• **La entidad adjudicataria deberá ponerse en contacto con las personas responsables de las entidades locales con Plan Local de Adicciones de los lugares donde se realizará la actividad** al objeto de cerrar y concretar las fechas.
• **Adikzio-planik garatu ez den toki-erakundeetan, erakunde esleipendunak zuzenean egingo dio prebentzio-programaren eskaintza tokiko-erakundean.**	• En aquellas **entidades locales donde no se haya desarrollado un Plan de Adicciones, la entidad adjudicataria realizará la oferta de la actividad a la entidad local de forma directa.**
• **Erakunde esleipendunak Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik 4 asteko epean, aurkeztu beharko dio garatu asmo dituen esku-hartzeen proposamena**, prebentzioko teknikarien eta tokiko-erakundeen eskaerak ezagutu ondoren. Zuzendaritza honek proposamena onartu beharko du.	• La entidad adjudicataria **deberá presentar, en un plazo de 4 semanas a contar desde el día siguiente de la firma del contrato, a la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno Vasco la propuesta de intervenciones** que tiene previsto desarrollar, una vez conocidas las solicitudes de los y las técnicos de prevención y las entidades locales. Esta Dirección deberá aprobar la propuesta planteada.
• **Kontratua beste urte batez luzatzen bada, hasi baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztu beharko da aurreikusitako esku-hartze plana**, kontratazio honen balorazio-irizpideetan adierazten den bezala.	• En caso de que el **contrato se prorrogue por otro año** más, deberá, también presentarse, **al menos un mes antes de su inicio, el plan de intervención previsto**, tal y como se señala en los criterios de valoración de esta contratación.
2.4.2- INPLEMENTAZIO- ETA GAUZATZE-FASEA	**2..4.2- FASE DE IMPLEMENTACIÓN Y EJECUCIÓN**
• **Jarduera planifikatu eta prestatzeko eta ondoren gogoeta** egiteko ondorengo gai hauek proposatzen dira:	• Se proponen las siguientes temáticas a tener en cuenta para la planificación y preparación de **la actividad y posterior reflexión:**
○ **Ausazko jokoaren kontzeptua eta tipologiak** (zoria, apustu ekonomikoa, irabazteko itxaropena).	○ **Concepto y tipologías** del juego de azar (azar, apuesta económica, expectativa de ganancia).
○ **Benetako arrisku-egoerak identifikatzea:** aisialdi osasungarriaren eta arrisku-portaeraren arteko aldea.	○ **Identificación de situaciones** reales de riesgo: diferencia entre ocio saludable y comportamiento de riesgo.
○ **Aldizkako errefortzua eta kontrolaren pertzepzio okerra** (jokoarekin lotutako joera kognitiboak: kontrol-ilusioa, jokalariaren falazia).	○ **Refuerzo intermitente y percepción errónea** de control (sesgos cognitivos asociados al juego: ilusión de control, falacia del jugador).

○ Taldearen, gizarte-presioaren eta aisialdi-**ingurunearen eragina**.	○ **Influencia** del grupo, la presión social y el entorno de ocio.
○ Jokoaren erabilera desegokiari lotutako **arriskuak** eta horren ondorioak: arrisku pertsonalak (emozionalak, ekonomikoak eta osasunekoak), eragina hezkuntza, lana eta komunitatearen eremuan, gizarte-isolamendua eta harremanen narriadura.	○ **Riesgos asociados** al uso inadecuado del juego y sus consecuencias: riesgos personales (emocionales, económicos y de salud), impacto en el ámbito educativo, laboral y comunitario, aislamiento social y deterioro de relaciones.
○ **Laguntza goiz eskatzearen garrantzia:** informazio-, orientazio- eta laguntza-zerbitzuak.	○ **Importancia de pedir ayuda de forma temprana**: servicios de información, orientación y apoyo.
○ **Eguneroko bizitzarako transferentzia.**	○ **Transferencia a la vida cotidiana.**
○ **Prebentzioko konpromiso pertsonalak eta taldekoak.**	○ **Compromisos personales y grupales de prevención.**
2.4.3- EBALUAZIO-FASEA • **Bi hileko txostenak egitea** eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzara emailez bidaltzea, dagokion aldiko tailerren datu kuantitatiboak eta kualitatiboak emanez.	**2.4.3- FASE DE EVALUACIÓN** • **Elaboración y remisión por email** a la Dirección de Salud Pública y Adicciones **de los informes bimensuales** aportando datos cuantitativos y cualitativos de los talleres del periodo correspondiente.
• **Kontratua amaitzean, behin betiko azken txostena** ere aurkeztuko da.	• A la **finalización del contrato** se presentará además la memoria **definitiva.**
2.5- ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK. • **Genero-ikuspegia** sartzea zerbitzuaren diseinuan eta plangintzan, inplementazioan, ebaluazioan eta materialetan.	**2.5-OTRAS OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD ADJUDICATARIA** • Incluir la **perspectiva de género** en el diseño y planificación de la actividad, y en su implementación, evaluación y materiales.
• **Behin zerbitzua esleituta**, esleitutako enpresak, **proiektua hasi beharko du gehienez 2 asteko epean Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari planteatutako proposamena onartzen denetik.**	• **Una vez adjudicado el servicio**, la empresa adjudicataria deberá **iniciar el proyecto en un plazo máximo de 2 semanas a contar desde la aprobación de** la propuesta planteada a **la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno Vasco.**

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

GUILLERMO IGNACIO HERRERO ALAÑA - 14254007X

Firmado digitalmente por GUILLERMO IGNACIO HERRERO ALAÑA - 14254007X
Fecha: 2026.06.11 12:57:40 +02'00'

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaria

Director de Salud Pública y Adicciones

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 92 01– Fax 945 01 91 92 – E-mail: dirsalud-san@euskadi.eus